

Quisiera ser alcalde Donostiyakua...

Gaia jarrita

Iñaki Iturain



Goenkalek mila ale

Milagarrena iritsia du nagusi da Goenkale, Arraldek hartu zun festarako ospaleku Kursaal kale, Perurena da antzezle baina baita harrijasotzale, ehun kilokoa mila alditan kilotan: ehun mila ale, bereganatu zituen beste mila Goenkalezale.

Udal liburutegi sarearen garapena

hiri honetako edo beste edozein hiritako alkatea izatea oso zaila iruditzen zait; izan ere, betidanik, arlo oso zehatzean aritu naiz eta alkate-tzan egoteko ikuspegi globala behar da nire ustez.

Donostiarra naiz eta bizi naizen hiria gustatzen zait; Donostiak oraindik ere beste hiri batzuk galdu duten dimentsioa, bizimodua eta eroso bizitzeko baldintzak mantentzen ditu. Dena den, azken urteotako merkatal zentroen ugaltzeak kezkatzen nau; espazio hauek ez dituztelako hiritarren harremanak sendotzen, kontsumorako ohiturak sortzen baizik, gizarte aurreratu baina erabat indibidualista eta kontsumista batetik datozelako. Alkatea banintz, sortu edo sortuko diren era honetako zentro kopuruaren azterketa sakona egingo nuke, beren eragina, batez ere gizarte mailan, ezagutzeko eta neurriak hartuko nituzke Donostiak duen izaera mantentzeko.


Bestalde, lana kultur munduan eginen dudanez, alkatea banintz, Udal Liburutegi Sarearen garapena bultzatzea izango litzateke nire helburu nagusia; sarea auzo guztietara zabaltzea eta Liburutegi Nagusiak lortzea lantzen ari den kalitatea, modernitatea eta erakargarritasuna. Honen bidez, horrela, dohainik bermatuko litzateke hiritar guztientzako

ezagutza orotarako sarbidea.

Liburutegiei behar dituzten bitartekoak emango nizkieke, irakurketa eta aisialdiaz gain, informaziorako ate handi bat izateko teknologia berrien bidez (internet, CD roma); izan ere, biztanleriaren zati batek ez du teknologia berriak ezagutzeko aukerarik momentu honetan eta tresna hauen ezagupenetik kanpo gelditzen ari da, hori dela eta, biztanle hauentzako interesgarri izan litekeen informazioa eskura edukitzeko, hala nola, lan eskaintzak, bekak, dirulaguntzak...

Laburbilduz, alkatea banintz, hiriaren garapen kulturalean oreka lortzen saiatuko nintzateke eta kultur zerbitzuen garapen sendo eta indartsua bideratuko nuke, horrela hain ezagunak diren jarduerak, Jazzaldia, Musika Hamabostaldia edo Zinemaldia, donostiarren kultur ohituren adierazgarri bilakatuko lirateke.

SUSANA SOTO.
Udal Liburutegiko
zuzendaria.



Argazkia
Imanol Otegi

ERLOJU TAILERRA
BITXIEN TAILERRA
URRE ETA ZILARREZKO BAINUAK

SEIKO - LOTUS
FESTINA - CITIZEN
PULSAR - CASIO
SWATCH - FLIK-FLAK
CALYPSO

MIKEL

ERLOJUTEGIA
BITXITEGIA

Karkizano kalea 9, behe • Tfnoa: (943) 32 06 95 • Faxa: (943) 32 01 15 • GROS